



**LAZKAOKO  
UDALA**

**2021EKO URRIAREN 25EKO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bateko urriaren hogeita bostean, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarraín Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2021eko urriaren 4an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira. Aztertu ondoren 2021eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 63 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, HIRUROGEITA ZAZPI MILA ETA LAUROGEITA HAMALAU eruro ETA HOGEITA HAMALAU zentimo (67.094,34 €)takoa onartzea erabaki da.

**III.- ELOSEGI KALEKO ZUBIA ETA UDALETXE ATZE ARTEKO URBANIZAZIOAREN 2. OBRA EGIAZTAGIRIA, LIKIDAZIOA.-**

Elosegi kaleko zubia - Udaletxe atzea gunea oinezkoentzako gunea bihurtzeko lanen obra zuzendaritza daramaten Pedro Izaskun arkitektoak eta Estibaliz Igartua arkitekto teknikoak lan hauen likidaziokoa den bigarren obra egiaztatzea egin dute. Bigarren obra egiaztatzeko honen zenbatekoa HIRUROGEITA HAMAZAZPI MILA SEIEHUN ETA LAUROGEITA ZORTZI euro ETA HOGEITA BI zentimokoa (77.688,22 €) da, BEZ barne.

Lanak Sasoi Eraikuntzak S.L. enpresak burutu ditu.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du teknikoki horrela dela ez dutela zalan-tzan jartzen baina proiektuarekin berarekin ez daudela ados eta beraz abstenitu egingo di-rela.

Gaia aztertu ondoren, tokiko gobernu batzarrak, aldeko 3 boto (EAJ), aurkako bo-torik gabe eta 2 abstentzioz (EH Bildu), lanen likidaziokoa den obra egiaztatzeko hau onartu egin du.

**IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-**

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:



#### Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 20-11-09 esp. zk.: zerbitzuan baja ematea 2021eko irailaren 13tik aurrera, erabiltzaileak egoitzan sartu delako.

#### Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 21-01-010 esp. zk.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 € eta alokairu gastuetarako hilean 250 €ko dirulaguntza ematea, urritik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

#### Garraiorako laguntza.-

- 21-19-01 esp. zk.: Donostiako "Berriztu" adin txikikoen eguneko zentrora joan etorriak ordaintzeko, hilean 73,30 €ko dirulaguntza ematea 9 hilabetez, 2021eko irailetik 2022ko ekainera.

#### V.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura batzordeak egindako proposamenaren aurrean Tokiko Gobernu batzarrak honako dirulaguntza hau onartu du:

#### Kantaka abesbatza.-

Udala eta Kantaka abesbatzaren artean izenpetutako hitzarmenean finkatutako jardueren burutzea justifikatu ondoren, dirulaguntzaren azken %40aren ordainketa, MILA ETA BERREHUN euro (1.200,00 €), onartzea.

#### VI.- EUSKARAKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak euskara eskoletara joateagatik dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako akordio hau hartu du: 2021 ikasturtean euskerako ikastaroa amaitu duen ikasleari, bere espedientean azaltzen denari, 537,30 € ematea; eta 2021 ikasturtean euskera ikastaroa egiten hasi diren bi ikasleri, bere espedientean zerrendatzen direnari, dagokien dirulaguntzaren herena ordaintzea. Bi ikasleri ordaintzekoa guztira 264 € da.

#### VII.- LANDA LURRA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa lurreko batzordetik, baserritar ekoizleei 2021eko erosketa bonuen ordainketa egiteko proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, honako erabakia hartu du:

Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2021eko apirilean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat baserritarrek jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien baserritarrei hortzigarren ordainketa egitea, ondorengo xehetasunaren arabera:

| Baserritarra     | Zenbatekoa |
|------------------|------------|
| IKER SUKIA MESAS | 275 €      |



LAZKAOKO  
UDALA

|                           |                 |
|---------------------------|-----------------|
| AITOR IZTUETA BARANDIARAN | 90,00 €         |
| <b>GUZTIRA .....</b>      | <b>365,00 €</b> |

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeita bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

